

Ezkanatu eta... Izenpetu !



Publiko, pribatu : Azaroak 16
denok grebara !
10,30tan Baionako geltoki aitzinean

LAB 10, place sainte Ursule
64100 Bayonne
www.lab.eus/ieh / 05 59 59 50 20
LAB, Le syndicat des travailleurs et travailleuses du Pays Basque

ALARMA SOZIALA

Euskal herria :
Macron legearen erremutik kanpo ?

Denok batera,
posible da !

Gobernamenduak plantan emandako lanaren erreformarekin, langileak oraindik gehiago erasotzen ditu. Erreforma honek, normen hierarkia geroz eta gehiago zapalduz, langileak oraindik gehiago prekarizatzen ditu. Adibidez, enpresa akordio batek aintzinekotasun prima bat ezeztatzen ahalko du abantail hori lan konbenio kolektiboan agertzen bada ere.

LAB ek ez du frantsez estatuaren einean eraginik izanen baina Euskal Herrian erreforma horien ondoriak mugatzen ahal direla segur gira.

Akordio apalagoak negoziatzea enpresa bakoitzari aukera emanez, Macron legeak langileak prekaritatean geroz eta gehiago sartzen ditu.

LAB-ek ez du Macron legea Euskal Herrira sartzera utzi nahi ! LAB-ek langileentzat babes eremu bat eraiki nahi du. LAB-ek negoziaketa kolektiborako tokiko espazioa eraikitzea proposatzen du. Bide hortarik « principe de faveur »

delakoa Euskal Herrira ber integratzea proposatzen dugu : **Hobekio erran lurraldeko akordioak eraiki langileentzat hobeagoak baldinbadira !**

LAB-entzat, tokiko tresna kolektiboak berreskuratzea ahal bezain laister ezinbestekoa da. Euskal Herrian kokatzen diren beste sindikatuak asmoa baldinbatute egingarria da.

LAB-ek ezin du utzi prekaritatea hedatzen. Langileei erantzunak eman behar dira orain.

Hara zergatik LAB ek borroka tresna berri bat asmatu duen « Euskal Herria Macron erremutik kanpo egon dadin » : Alerta eskubide bat atzerapen sozial bat enpresa batean agertzen delarik.

Zure enplegatzaileak konbenio kolektiboa baino apalagoa den akordioa poposatzen badizu, **ALARMA PIZTU ! ABISATU GAITZAZU !** Elkarrekin harresi soziala antolatuko dugu bakoitzaren gizarte abantailak atxikitzeko gisan.



LAB 10, place sainte Ursule
64100 Bayonne
www.lab.eus/ieh / 05 59 59 50 20

LAB, Le syndicat des travailleurs et travailleuses du Pays Basque

Pays Basque
ZONE HORS LOI MACRON

ALARMA SOZIALA : Nola funtzionatzen du ?



Zure enpresan, zure nagusiak akordio txarrago bat pasarazi nahi badu :

Nagusi batek enpresa akordio berri bat egin nahi badu zuen konbenioko arauak baina txarragoa dena, ALARMA SOZIALA aktibatzen ahalko duzu, eta hori edonork aktibaturik.

Derrigorrez eskatuak izanen zaizkion xehetasunak alarma piztu duenari hauek dira :

1. Konbenioa baino txarragoa den akordio bat egin nahi duen enpresaren izena.
2. Alarma pizten duenaren kontaktua informazio onak ditugula segurtatzeko.

Alarma piztua dago :



Protokoloa aplikatzen da

Etapla 1, negoziatzen dugu

Lehenik LAB sindikatuko norbait alarma piztu duenarekin harremanetan sartuko da egoera ongi ulertua dela segurtatzeko. Gero enpresaren sarreran trakta bat banatua izanen da langileak jakinean izan daitezen alarma bera piztua izan dela. Lehen bilkura bat antolatua izanen da alarma hori benetakoa eta funtsezkoa dela segurtatzeko.

1. Langileak entzunen ditugu baina beti interes kolektiboa lehentasun bezala atxikiz.
2. Delegatuak baldin badira enpresan bertan haiekin harremanetan sartuko gara.
3. Eta azkenik nagusiarekin harremanetan sartuko ginateke bere akordioa bertan bera utzi dezan.

Hori dena egin eta enpresak bere akordioa mantentzen balu, 2. etapara pasatzea bortxatuak izango ginateke.

Etapla 2 : Elkartasun harresi soziala.

Baldintzek eskatzen badute, enpresa blokatzeko alerta orokor bat deituko genuke. Email bat edo SMS bat bidalia izanen zaie manifestoa izenpetu duten langile guztiei.

Gure ahalak eginak izanen dira enpresa osoki blokatzeko akordioa bertan bera utzi arte.

Azkenean Alarma soziala gelditua izanen da enpresak definitiboki bere atzerapen sozialeko akordioa kenduko duelarik.

Pays Basque LAB
ZONE HORS LOI MACRON

**ALERTE:
ZONE HORS
LOI MACRON**



MANIFESTUA :

Manifesto hori izenpetzerakoan:

1. Ez dut onartu nahi Macron legeak gure ekonomiari, enpleguari eta lan baldintzei kalte egin dezan Euskal Herrian.
2. Enganatzen naiz euskaldeko negoziazio eremu kolektibo baten eraikitzearen alde lan egitea, langile guztien eskubideak mantentzeko eta hobetzeko.
3. Nere enpresan kobenio kolektiboko akordio txarrago bat egitea pentsatua bada segidan alarma soziala piztea neregain hartuko dut.
4. Nere ahalmenen arabera, enganatzen naiz kolektiboki antolatua izanen diren ekintzetan parte hartzea, langileen eskubideak txikitu nahi dituen eta interes kolektiboaren aurka egin nahi lukeen enpresa baten aurrean.

LAB